

ZAHARTZAROAREN INGURUKO EMAKUME ZAHAR BATEN AUSNARKETA

Egunon. Hemen zaudetenei eta etxetik telematikoki jarraitzen gaituztenoi esker ona.

Hitzaldi hau gazteleraz izango den arren, bukaerako galdera txanda zuen aukerako hizkuntzetan egin ahalko da, gazteleraz, euskaraz, ala frantseseraz. Ingeleraz eginez gero, ulertu arren, gazteleraz erantzungo dizuet.

Abisu hauen ondoren, eta ezagutzen ez nauzuenentzako, asko izango zarete, nor naizen argitu dizuet.

Emakumea naiz, alaba izan naiz, ama naiz, bizikide, etxekoandre, lagun, kazetaritzan jarduten naiz eta hainbat urtean behin, liburu bat idazten dut, beti euskaraz. Beraz, euskalduna naiz gainera, feminista gogotsua eta, orain dela urte batzuetatik hona, zaharra naiz. Eta definitzen nauten guzti hauetatik ez nau ezerk lotsa arazten, ez dut ezer disimulatzeko beharrik sentitzen. Ezta zaharra izatearena ere. Asko kosta izan zait zahar izatea iristea, nire urte berean jaiotako batzuk lortu ez dutena.

Esan nahi dut, ausartu izan banintz, solasaldi honi izenburu hau jarriko niola: “Zahartzaroaren inguruan emakume zahar baten hausnarketa”. Hor datza arazoaren zati bat: ausardia ezean. Gaur egungo emakumeok, eta bereziki emakume zaharrok, gauza asko egiteari uzten diogu, ez debekatuta dagoelako, ausartzen ez garelako baizik. Ba dakit zahar itza erabiltzeak hautsak arrotzen dituela. Segituan esaten dizute zaharra ez zarela, trasteak izaten direla zaharrak.

Baina, orain arte esandakoaz gain, beste gauza batzuk ere ba naiz:

(Anécdota 150 gramos de Teruel. Para ella, soy la vieja que compra 150 gramos de jamón de Teruel).

Bizitza osoa daramat aske izan nahian, zilbor hestea libratu, umetan ikasitakoak desikasi eta hausnarketan. Eta ikasten: bizitzan ezer hobeagorik ba da?

Gaur, nireaz eta nire tokitik behatu ditudan lagunen zahartzaroaz ikasi dudana horretan murgilduko naiz. Bizituz, behatuz eta irakurriz ikasi dudana.

Presta zaitezte beraz ordu erdiko txapa entzuteko, suerte pixka batekin 25 minutu izango dira, eta ondoren zuen galderei erantzungo diet, eta egiten ez badituzue, neronek egingo dizkizuet, gustatu ala ez, publikoari parte hartu arazten dioten aktore eta aktorea horien moduan.

Galderen atala bereziki axola zait, esango dudana pertsona bati behintzat interesatuko zaiola bermatuko bait dit, hemendik aurrera esatera noanarekin horren argi ez dagoena.

Galderarik egin edo zuei galdetzerik nahi ezean, hemendik aurrera 25 minutu kontatu ondoren hemendik atera, hotsik egin gabe posible bada hobeto.

Hasteko, zahartzaroaren historiari buruzko minutu bat.

Gure zibilizazioko aldaketa guztien artean, txundigarriena gure biziraupenaren areagotzea da, ezbairik gabekoa izan arren, zenbatekoa den esatea erraza ez dena. Zientzilariak ez dira ados jartzen historia aurrean edo gure aroko lehen mendeetako batezbesteko biziraupenaren zenbatekoa ote zen esateko garaian.

Aurkitu diren gizakien aztarnetan oinarrituta, ba dakigu oso gutxi zirela berrogei urtetako muga gainditzen zutenak. Nonbait antropologoez ez dute 50 urtetatik goragoko historiaurreko gizakien hezurrik aurkitu.

Gauza jakina da baita ere XIX. mendeko erdialdean hasitako medikuntzaren hedakuntzari esker biziraupena luzatzeko aukera izugarri

areagotu dela. 1900. urtetik egunerarte, urteko 3 hilabetetan luzatuz joan da biziraupena. Ez da eskupeko makala, beti ere denbora estra honekin zer egin asmatuz gero.

Zientziari esker, gaur, gizateriaren historia osoan lehen aldiz, 80. hamarkadan barneratu den kohorte oso bat aurkitzea normala da, ohiko bihurtu da. Eta garai bateko mapetan “terra incognita” deitzen ziren lur horietako batean, esploratu gabeko lurralde batean sartzen ari dira. Mapa batzuetan lurralde ezezagun hauek modu ikaragarriagoan definitzen zituzten: "Hic sunt dracones", hemen dragoiak daude.

Gure dragoiak, maparik eta brujularik gabe, ezezaguna den lurraldean barrena doazen 80 urtetik gorako adineko horiek dira. Beraien aurkikuntzak ondoren goazenontzako baliagarriak izango dira, gaur arte zahartzaroaz esan digutena errepikatze soilari utzi eta benetako kartografia egiteko aukera izanen dugu.

Zahartzen diren arren, hau ukaezina da, inoiz zaharrak izatera iristen ez diren pertsona horiek, zahartzeko modu berri bat asmatu beharrean daude. Eta horretarako, nire errua ere ba den oztopo bat gainditu beharko dute.

XX. mendeko 60.hamarkadako bukaera aldera arte, bizitzaren gailurra, zenita, helduaroa zela uste zen. Garai hartan, gazteok ikastunak ginen, ikasteko asko genuen fruitu berdeak, merituak egin behar genituen pertsona gisa bere osotasunean hartzeko. Sinestezina irudituko zaizue, baina ordura arte gaztea izatea traba baino ez zen, eta, nahi zenaren arabera, aintzakotzat hartuak izateko, zaharragoaren itsura ematen ere saiatzen ginen. Eta hori ezabatuz, lausotuz joan zen, baina iraun egin zuen. Felipe Gonzalezi bere lehen hauteskunde-kanpainetan belarri aldeko ileak zuritu egin zizkioten. Hamarkada batzuk geroago, Rajoyk ilea tindatu zuen bere ile urdinak ezkutatzeko.

Gauzak horrela, hamarkada horren bukaera aldera, 1968an, aparteko asmakizun bat sortu eta sendotu zen: bizitzaren gailurra gaztaroan zegoen eta, hortik aurrera, dena zen ahulezia, dena zen maldan behera joatea heriotzaraino. Gaztaroaren ondoren, bizirik irautea besterik ez zen geratzen.

Idea iraultzailea izan zen hitzaren zentzu txarrean, baina arrakasta izan zuen eta oraindik ere irauten du. Nire belaunaldia izan zen paradigma-aldaketa horren erruduna, eta orain, bumerang batek bezala, mutur osoan ematen digu. Merezitakoa.

Une horretan hasi ziren pertsona heldu asko urteen disimulurako lasterketa zoro batean. Gaztea zirudien, zaharrez hiltzeraino. Eta horretan diardugu.

Ez ditugu mugak argi, ez dakigu noiz hasten den gazte izaten, ezta gaztetatik heldu izaterako langa noiz igarotzen den ere, are gutxiago heldu izatetik zahartzarokoa. Baina gaztetasunaren itxura agindu ia saihestezina da. Kasu askotan, patetismorainokoa.

Agindu hau ezinbestekoa dela egiaztatzeko, esperimentu bat proposatzen dizuet.

Esaiozue aurrean duzuen edozein pertsonari, duen adina duela, duen itxura duela, bere NANak adierazten duena baino gazteagoa dirudiela.

Hainbat gauza frogatuko dituzue. Lehena da sinetsi egin duela. Bigarrena lausengatua sentitzen da, gaztetasunaren plantak egiteko ahaleaginean saritua. Hirugarrena ezin izango duzue egiaztatu, baina ziur nago hori izango dela etxera iristen denean kontatuko duen lehenengo gauza, hurbileko pertsonari kontatuko dien lehen gauza. Gaur esan didate hamar urte gazteagoa dirudidala, gaur galdetu didate ea nire semearen neska-laguna naizen, ea nire alabaren mutil-laguna naizen. Iragarki bat ere badago irratian. Zerbitzari batek tabernako mahaitik altxatzen den pertsona bati

oihu egiten dio, bueltak bertan utzi dituelako. *E, gazte, bueltak utzi dituzula*

...

Proba egizue eta esan dizuedana egia dela frogatuko duzue.

Benoa, tokatzen zaiguna baino gazteago agertzen saiatzen garen bitartean, zer egingo dugu gure bizitzarekin? Zer egingo dugu zientziak oparitu dizkigun eskupeko urte horiekin?

Dena aldatu da, zahartzaroari buruz ditugun ideiak izan ezik. Zaharra esaten dugunean (edo debekatutako hitza ez ahoskatzeko erabiltzen dugun beste edozein hitz), besaulki batean eseritako pertsona bat imajinatzen dugu, ahal izanez gero sutondoan, eta adeitasunez besterik ez bada ere, bere gazte-istorioak entzuteko prest dauden belarri pareak inguruan izango dituen; hori da ikasi duguna.

Irakasteko dauden pertsonak irudikatzen ditugu, irakasten digutena interesatzen ez bazaigu ere. Inolaz ez ikas dezaketen pertsonak.

Koadro tradizional hau, xehetasun esanguratsu batekin osatu dugu berriki: agure horrek pentsio bat kobratzen du, ziurrenik emakumezko adinekoak baino handiagoa, baina biek kobratzen dute pentsio bat. Zer gutxiago. Eta hori, pentsioaren kontu hori orain belaunaldi pare bat besterik ez dela existitzen munduko bazter honetan. Beraz, koadro tradizional batean pentsioa duen adineko bat irudikatzea, Goyaren koadro batean telefono bat jartzea bezala da.

Aurretik, XX. mendearen erdialdeko zaharrek ez zuten pentsiotaz sekula ezer entzun. Europan XIX. mendearen amaieran hasi ziren ezartzen, eta hemen XX. mendearen bigarren erdialdean. Aurretik, zaharrek beren jabetzei eusten zieten, zeuzkatenak, eta tailerraren, dendaren edo nekazaritza-ustiategiaren zuzendaritza ondorengo belaunaldiaren esku uzten

zuten ala ez. Baina ez ziren erretiratzen, amaierara arte taldearen biziraupenean laguntzen jarraitzen zuten.

Imajinarioak zahartzaroari buruz kontatzen diguna beste bizitza mota bati dagokio, beste familia-unitate mota bati, ezagutza beti goitik behera transmititzen zen gizarte bati, zaharretatik gazteetara. Ez da baliagarria gazteek adinekoei irakasten dieten gizarte batentzat (ez teknologia solik), ez eta, atzean ez geratzekotan, sehaskatik hilobira, etenik gabeko ikaskuntza inposatzen digun gizarte batentzat. Liburuetatik edo sare informatikoetatik ikas ditzakegunetik, bizitzan zehar metatu ahal izan ditugun ezagutzak transmititzea ez da ezinbestekoa.

Baliteke gure bizipenetako zerbait, bizitza ikusteko dugun modutik zerbait, baliagarria izatea beste batzuentzat, baina gutxitan ezagutza zehatzak. Agure batek, adineko emakume batek, zein elikagai ziren kaltegarriak, zein belar ziren onuragarriak erakusten zuenean, zahar horren estatusa desberdina zen.

Kontua da zahartzeko modu tradizional hori ia erabat desagertu dela. Hala ere, zahartzaroari buruz jada balio ez duten, nahiz eta garai batean ohizkoak izan diren ideiak errepikatzen jarraitzen dugu.

Nik neuk, nire urteekin, zerbait egin ezin badut edo egin nahi ez badut, adin horretan ezin dela egin esaten dut. Gazte batek ados ez gauden zerbait defendatzen badu, ziurtzat jotzen dugu eboluzionatuko duela, guk egin dugun bezala, eta esaten dugu urteen poderioz iritzia aldatuko duela, zehazki gure norabidean. Gaztaro errebelde batetik zahartzaro konformista batera igaro bagara, gaurko gazte errebeldeei gauza bera gertatuko zaiela dekretatzen dugu.

NANak gure bizitzak gobernatuko balitu bezala jokatzeko dugu, eta ez gure kontzientziak edo gure borondateak. NANA gezurtatzen saiatzen gara, baina jaiotza-dataren esklaboak gara egin dezakegunari eta egin ezin dugunari dagokionez.

Eta ziurtzat jotzen dugu ezin dela aldi berean zaharra eta errebeldea izan, naturalena gazte izateari uzten diogunean matxinada uztea dela. Hori gezurtatzeko, nahikoa litzateke Stéphane Hessel gogoratzea, 90 urte baino gehiagorekin, "suminduen" mugimenduaren jatorria izan zen *Indignez vous* izenburuko liburua argitaratu zuena. Egitatetzat jotzen dugu, adibidez, zahar bat ezin dela maitemindu, nahiz eta badakigun pertsona batzuk zahartzaroan maitemintzen direla lehen aldiz.

Pentsamendua falta zaigu, ideologia falta zaigu. Honetan ere zientziak humanitateek baino gehiago egin du aurrera. Gehienez ere, zahartzaroa ikuspuntu asistentzialetik edo sanitariotik planteatzen dugu, gizarteak jasan behar duen zama gisa. Guztiz beharrezkoa, baina ez nahikoa. Zaharrak arazo bat gara, ez konponbidearen parte.

Pertsona batek erretiroa hartzen duenean, 20 urte baino gehiago izango ditu aurretik, ziurrenik. Gure bizitzako lehen 20 urteetan gertatu zitzaigunari edo pasatzeari utzi zionari bueltaka pasatzen dugu bizitza, eta, hala ere, ez dugu proiekturik azken 20 urteetarako. Iraun, biziraun soilik. Oroimenak ematen dizkigun gezurrei bueltaka, oroituz, bizirik irautea, egia absolutuak balira bezala, asmatutako paradisu bat gogoratuz. Helburua da irautea eta, bitartean, atsedeen hartzea, gozatzea (une eta egoera guztietan gozatzea agindu unibertsala baita), baina alde batera utzita, tartean sartu gabe, eragozpenik sortu gabe. Bizitzan eragina duten erabakiak hartzen diren lekutik kanpo, harresietatik kanpoaldean.

Horregatik esaten dugu "nire garaian", gaztetan esan beharrean. "Nire garaian" esaten dugu, "zure garaian" esaten uzten diegu, eta ziurtzat jotzen dugu hauek ez direla gure garaiak, hemen eta orain gaudela, baina oraina ez dagokigula. Iragana bakarrik da gurea. Erretiratu zaitezte, orain guri dagokigu eta.

Rita-Levi Montalciniren aipamen bat irakurriko dizuet, Medikuntzako Nobel saridunak ehun urte bete zituenekoa:

"Ez dago ez errurik ez meriturik 100 urte betetzean. Begiak eta belarriak erori dira, baina ez garuna. Nire garunak mende bat du, baina ez du zahartzarorik ezagutzen. Gorputza zimurtu egiten da, saihestezina da, baina ez garuna. 20 urterekin nuen gaitasun mentala izaten jarraitzen dut, agian handiagoa. Eta ez du behera egin pentsatzeko eta bizitzeko gaitasunak. Eutsi zure burmuina ilusioz beteta, aktibo, funtzionarazi, eta ez da inoiz degeneratuko".

Eta, hala ere, guztiz kontrakora gonbidatzen gaituzte, jarduerarik ezera, dimisiora bultzatzen gaituzte, guretzat onena eta guk nahi duguna dela sinestaraziz, hori dela nahi izan behar duguna. Atsedeen hartzea agindu, betebeharrak, gure patu bakar bihurtzen da.

Zilegi bekit beste aipamen bat, kasu honetan Rosa Regásen "La hora de la verdad" liburutik jaso.

"Egin dezakegun gauzarik onena atsedeen hartzea, etzatea, ahaleginari uko egitea sinestarazteko zelatatzen gaituzte, atsedeen hau merezi dugula esateko, ezergatik ez ordezkatzeko. Eta aldi berean errepikatzen digute ez dugula ikasteko, bidaiatzeko edo instrumentu bat jotzeko adinik, ezta lorezaintzan, poesian, antzerkian edo justizia sozial, politiko edo munizipalaren alde borrokatzeko adinik".

Nire aldetik, ez dut ezer zahartzaroa horrela bizitzea erabakitzen duenaren kontra. Baina uko egiten diot hori betebeharrari edo dogma izateari. Mundu guztiak du zahartzaroan "ni-ni" izateko eskubidea, baina ez da derrigorrezkoa. Rosa Regasek esan zuen bezala, hartuko dut atsedeen hiltzen naizenean.

Eta ez naiz horrela pentsatzen duen bakarra.

Zahartzeko modu tradizionala ia erabat desagertu da, eta oinarritzko baldintzatzat aukera daitekeena izatea duen modu berri bat asmatzen ari gara, leku komunak edo idatzi gabeko legeen esklabo ez dena.

Inguruan begiratuta, radarra piztuta, zahartzeko modu berri baten adibideak ikus ditzakegu. Erretiroa hartu ondoren unibertsitatean ikasten duten adinekoak ikusten ditugu, zaharrak izanik irakurtzen eta idazten ikasten dutenak, boluntariotzan jardutean aktibo jarraitzea erabakitzen dutenak, erretiroa hartu ondoren kirola egiten hasten direnak.

Adinekoak esan dut, baina adineko emakumeak esan nezake, aipatutako adibide gehienetan emakumeak baitira nagusi, gehiengoa gara. Idatzi gabeko legeak desobeditzera ausartzen diren pertsonak dira, adin bakoitzean zer egin daitekeen edo zer ez, nola jantzi daitekeen edo ez, zer nahi den, nola bizi daitekeen, nola maita daitekeen.

Gizarte tradizionala idatzita ez zeuden baina nahitaez bete beharreko lege horiez beteta zegoen, zure burua artaldetik baztertuta ikusi nahi ez bazenuen. Baina orain, XXI. mendea aurrera doala, askatasuna irabazi dugu, aukera dezakegu, baita bide berriak ireki edo beste pertsona batzuek zabaldu dituzten bidezidorrak pixka bat zabaldu ere. Ez zaigu doan aterako, baina egin dezakegu.

Izan ere, gaur egun 70 urte baino gehiago ditugunok, jakin ala ez, 68ko maiatza hartako seme-alabak gara, nahiz eta ez jakin zer gertatzen ari zen gertatzen zenean, nahiz eta entzun, irakurri eta uste izan hura, berez, suzko errubarak besterik es zirela izan.

Pentsiodunen manifestaldiak ikusten ditudanean, hain ohikoak eta ugariak, baita pandemia garaian ere, gizon eta emakume zaharrak ikusten ditut, bai. Baina ikusten ditut, baita ere, diktaduraren aurka borrokatu zirenak, sindikatu klandestinoak, pisu edo sakristietan ezkutatutako ikastolak sortuz, ikusten ditut galtzak janzteko, ikasteko, abortatzeko eskubidearen alde, antikontzepzioaren alde borroka egin behar izan zuten emakumeak, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasunaren alde borrokatu zirenak. Protestatzea, manifestatzea, antolatzea, eskubide batzuk defendatzeko edo lortzeko zer den ondo dakiten pertsonak ikusten ditut.

Ikusten ditut, gainera, haien ahotsa erabili nahi duten pertsonak, beste batzuek haien ordeztu egiten dutela esatean etsitzen ez dutenak. Baliteke gure ezagutza asko gaur egun erabilgarriak ez izatea, baina, pertsonalki aberasteaz gain, parte hartzen dugun gizartea aberasteko aukera ematen diguten gauzak ikas ditzakegu.

Gure eta inguruko herrialdeetako gizartearen laurdena zaharra bada, gizartearen zati horrek eman dezakeena alde batera utzi ordeztu aprobeztatzen dakienak abantaila izango du. Nahiz eta horretarako beharrezkoa izan gaur egun indarrean dauden iritzi eta aurreiritziak ez entzutea eta modan ez dauden balioak berreskuratzea.

Gure ondorengoei zor dieguna ez da gazte itxura izaten jarraitzea, ez da nahitaez atsedean hartzea, ez da esaneko eta otzanak izatea, ez da zahartzen garela ukatzea, ez da geure burua baztertu edo ghettoetan ezkutatzea. Zahartzaroaren aurkako diskriminazioari aurre egin behar diogu, zaharra izan arren bizitzeko gogoia eta proiektuak izaten jarraitu daitekeela erakutsi. Ahaldunduak izaten jarraitzea, hala izatea zaila izan baita guretzat, batez ere emakumeak bagara. Orain, pixka bat ahalduntzea lortu dudanean, dimisioa eman behar dut zaharra naizelako. Eta, hala ere, bizitzako onena etortzeko egon daitekeela amesteko eskubidea dugu.

Ezaguna den arriskuetaiko bat da zahartzean gure ahotsa zaintzaileen, senideen edo erakundeen ahotsekin ordezkaturik ikustea. Intentzio onenarekin egiten badute ere, "zure onerako", sarritan lortzen dute gu infantilizatzea, izatez, dagozkigun erabakiak hartzeko gai ez diren pertsonak deklaratzeko. Ez egin hau, ez joan horra, ez jantzi hori, ez jan hori. Utzidazu zure bizitza gobernatzen.

Duela gutxi, Covidaren aurkako txertoa jartzeko nire adineko pertsonekin ilaran jarrita, 70 urte inguruko pertsonen belaunaldia eta duela ez hainbesteko adinekoena oso desberdinak direla egiaztatu nuen. Lehen hitzordua goizeko 9etan zen, eta ordu erdi lehenago dozenaka pertsona

zeuden zain. 9: 21ean ireki zuten txertogunea, errenkan matxinada bat hastear zegoela, atzerapenagatik, bai, baina baita azalpen faltagatik ere, pertsona horiek gutxietsiak sentitzen zirelako. Ziur nago, egoera berean, aurreko belaunaldiak ez zirela protesta egitera ausartuko.

Gu zaintzea nahi dugu, bai. Batzuetan behar dugu. Baina guk nahi dugun moduan nahi dugu zainduak izatea, ez besteek erabakitzen duten moduan.

Ziur nago gure erakundeak gobernatzen dituzten pertsonak oraindik ez dutela ulertu errebelde zahar mordo honekin gainera datorkiena, beren protagonismoari uko egin nahi ez diotenak, haur gisa tratatuak izan nahi ez dutenak, diren pertsona heldu gisa baizik.

Beste zahar-mota batzuk aurkituko dituzte, dagoeneko hasi dira zahar-etxeetan aurkitzen, eta egoitza horizontalagoetarako prestatu beharko lirateke, lege bertikaletan gutxiago oinarrituta, "Rebelión en las aulas" filma "rebelión en los asilos" bihurtu baino lehen. Laster egingo dute topo tatuajedun zaharrekin, praka bakeroak eta rocka entzuteko aurikularrak erabiltzen dituztenekin, beren eskubideen alde borrokatzea zer den dakitenekin.

Gertatzen ari da. Ikusi dut. Aspaldi ez dela, nire amaren lagun bat adinekoen egoitza batean bisitatzerakoan...

Hori gertatzen den bitartean, zahartzaroa hain sutuki iraintzen dugunok, bi aldiz behartuta gaude hura aldarrikatzera, pertsona integralak garela erakustera, gure eskubide eta betebeharrak guztiak indarrean ditugula. Gorputza ahuldu arren zahartzeak dituen abantailak aurkitzera.

Hala dirudien arren, pertsona gehienok urteak irabazi izana, hizkera arruntez esanda, zahartu izana, ez da arazo gisa bakarrik jorratu behar, konkista moduan baizik. Arazoa ez da gero eta zahar gehiago dagoela, ez garela hiltzen kontabilitateari komeniko litzaiokeenean. Beharbada, arazoa da ez direla behar adina haur jaiotzen, eta inoiz ez gero eta pertsona gehiago

iristen direla zahartzarora. Zahartzea ez da pertsona gutxi batzuen zoria, gizateriaren zati handi baten etorkizuna baizik.

Ez naiz inozoa. Badakit bide berriak irekitzeak bere kostua duela. Badakit bide nagusitik aldentzea, zentimetro batzuk besterik ez bada ere, ordaindu egiten dela, eta ordainarazten dizutela denbora gutxira lehen iraintzen zuten bidetik igarotzen direnek ere. Emakume batentzat galtzak janztea lotsagarria zela esan zutenetako batzuek jantzi egin zituzten gero. Dibortzioa krimena zela esan zutenetako batzuk handik gutxira dibortziatu egin ziren.

Horri dagokionez, eskaera bat egitera ausartzen naiz. Agure zahar bat ikusten duzuenean, aguretxo maitagarriaren arauak betetzen ez dituela dirudiena, ez dut esaten txalotu behar duzuenik, baina, gutxienez, ez kritikatu, ez gaizki begiratu. Errespetatu ezazue eta pentsatu ezazue, ziur asko, espero duzuen zahartzaroa hobetzen ari dela, bideak zabaltzen ari dela, askatasun-marjina zabaltzen.

Errespetatzea ez da zaharrak bizitzatik baztertzea, ez da zer duten edo zer ez duten egin behar esatea. Autodeterminazio pertsonala deitzen den horretarako eskubidea dutela pentsatzea da. Atsedena hartu nahi duenak atsedena har dezala, jardun nahi duenak jardun dezala.

Baina nahiago nuke gero eta zahar gehiago egotea, atsedena ekintzarekin bateratuko dutenak, gurea ere baden gizarte honetan inplikatu direnak.

Arantxa Urretabizkaia

2021ko ekaina. Helduak Adi!koak itzulua